



Hitz egiten diot, baina **EZ ENTZUNARENA** egiten du.

Hitz egiten diot, baina **EZ-ENTZUNARENA** egiten du.

Hitz egiten diot, baina **EZENTZUNARENA** egiten du.






*Aurpegira begiratu zion, baina **EZ IKUSIA** egin zuen.*

*Aurpegira begiratu zion, baina **EZ-IKUSIA** egin zuen.*

*Aurpegira begiratu zion, baina **EZIKUSIA** egin zuen.*



# Bereiz idazten da *EZ* partikula honako aditz-esapide hauetan:

- **EZ ADITUARENA EGIN / EZ ADITU EGIN**
  - ez-adituarena egin
  - ezadituarena egin
- **EZ ENTZUNARENA EGIN / EZ ENTZUN(A) EGIN**
  - ez-entzunarena / ez-entzun(a) egin
- **EZ EZAGUNARENA EGIN**
  - ...
- **EZ IKUSI EGIN / EZ IKUSIARENA EGIN**
  - ...
- **EZ JAKINARENA EGIN**
  - ...
- **EZ ULERTUARENA EGIN**
  - ...

- **EZ ADITU(ARENA) EGIN**

- Ukondo kolpeak eta ostikadak ematen saiatzen natzaio lo-zakuan zehar, baina berak **ez adituarena egin** du...

Iban Zaldua, *Inon ez, inoiz ez*, Elkar, 2014.

- **EZ ENTZUNARENA EGIN / EZ ENTZUN(A) EGIN**

- Baten batek nire liburua gogorarazi zuen, baina **ez entzunarena egin** nuen, nik idatzi izan ez banu bezala.

Elena Ferrante & Miren Iriarte, *Ihesi doana eta gelditzen dena*, Igela, 2016.

- **EZ EZAGUNARENA EGIN**

- Ezagutu zuen nire izeba, baina **ez ezagunarena egin** zuen.

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*

- **EZ IKUSI(ARENA) EGIN**

- Uste zuen neskak, berak bezala, disimulatu egiten zuela, **ez ikusiarena egiten** zuela, eta hori, jakina, sentimendu baten seinale zen...

Agustin Arrieta Urtizberrea, *Irlak*, Erein, 2015.

- **EZ JAKINARENA EGIN**

- Enkontruak sortu zion poza ezkutatzearren, Xabik **ez jakinarena egin** zuen hasieran.

Lander Garro, *Gerra txikia*, Susa, 2014)

- **EZ ULERTU(ARENA) EGIN**

- (...) eta esana dugu, gainera, Alsinak Madrilen Alberto zeritzan galai harekin topo egindakoa, honen gaztelania ulertu arren **ez ulertuarena egiten** zuela.

Xabier Mendiguren Elizegi, *Alsina*, Elkar, 2016.

Aditz-erregimenari dagokionez, ekintzaren jasailerik ez badago, *DU* erregimena erabiltzen da:

- (...) jolas itxurako hartan, Josefinak **ez ikusiarena egiten **zuen****, edo ez zion ikusten zuenari garrantzirik ematen:...

Joan Mari Irigoien, *Arma, tiro, bamm!*, Elkar, 2013.

Jasailerik izanez gero (dela biziduna dela bizigabea), aldiz, *DIO* erregimena:

- **Neskak ez ikusiarena egiten **zion** errealitateari.**


Alberto Ladron Arana, *Gezurren basoa*, Elkar, 2016

- (...) Teresak, bestela bezala, burua jiratu, eta **ez ikusiarena egin **zion**** Eulàliari.

Mercè Rodoreda, *Ispilu hautsia*, Alberdania, 2013.  
 Euskaratzailea: Antton Olariaga

## Adibide gehiago:

- Ahaztu ezin ditudan oroitzapenei, aldiz, **ezin diet ez entzunarena egin**, eta maiz bahitzen didate gogoia.



Unai Villena, *Hauts haietatik*, Elkar, 2016.

- (...) erran zidan poliziak, edo horrelako zerbait. Nik, akonaturik, **ez ulertuarena egin nion**.



Ernesto Prat, *Orpoz orpo*, Txalaparta, 2014.